

Isos,

Aukera Berdintasunerako Zerbitzuak

iaranaz.isos@hotmail.com

649 114 520 948 354 105



Bortziriakeko Mankomunitateko Ekintza Positiboko I. Plana

Idoya Aranaz Hernández

Isos, Aukera Berdintasunerako Zerbitzuak

Telefono zenbakiak: 948 35 41 05/ 649 114 520

iaranaz.isos@hotmail.com

Gidoia

1. Sarrera
 - Aurkezpena
 - Adierazpenak
2. Justifikazioa
3. Ekintza Positiboko Plana
 - Egitura
 - Iraupena
 - Arlo guztiek komunean dituzten helburuak
 - Lanaren aurreko oharrak
 - Esku-hartze Arloak:
 - Kultura Arloa
 - Kirol Arloa
 - Hezkuntza Arloa
 - Enplegu Arloa
 - Berdintasun Politiken ardura duen Arloa
 - Osasun Arloa
 - Zerbitzu Orokorren Arloa
 - Gizarte-zerbitzuen Arloa
 - Hirigintza Arloa
 - Biolentzia Arloa
4. Jarraipena eta ebaluazioa

2. Justifikazioa

"Demagun, lasterketa batean, talde jakin baten kide izateagatik zenbait korrikalariri zama astuna jarri dietela. Oztopo hori dela-eta, zama daraman batez besteko korrikalaria atzean geldituko da zamarik ez duen batez besteko korrikalariarekin alderatuta, nahiz eta zama duten zenbait korrikalarik zamarik ez duten zenbait aurreratuko dituzten. Demagun ere inork makil magikoari eragiten diola eta zamak korrikalarien bizkarretik desagertzen direla. Bi korrikalari taldeek gaitasun bera baldin badute, zama duen taldearen eta zamarik ez duen taldearen arteko aldea ez da gehiago handituko, baina aurretik diskriminazioa jasaten zuten horiek inoiz ez dira besteen parean jarriko.

Txanda korrikalari horien seme-alabei emango bagenie, lasterketan ez legoke berdinketarik, nahiz eta hainbat belaunaldiekin saiatu. Lasterketa garbia izan dadin, ezinbestekoa da denak gelditzera behartzea eta berriro ere irteeratik hastea; zamarik ez zuten guztiak taldeen jardunaren batez bestekoan dauden aldeak desagertu arte zama eramatera behartzea, edo iraganean desabantaila jasan zutenek berdindu arte abantaila bereziak jasotzea".

Lester Thurow

Azken hamarkadetan zehar, hainbat aldaketa harrigarri ikusi ditugu lanean eta gizartean; horien adibide dira emakumezkoak lan-merkatuan era masiboan sartu izana eta hezkuntzara heldu izana. Aurrerapauso horiek direla eta, askok emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak laster desagertuko zirela pentsa genezakeen, baina hori ez da horrela izan. Berdintasun "formalaren" eta "legalaren" estalkiaren azpian desberdintasun handia dago.

Gizartearen egiturak oinarri androzentrikoetan finkatuta daude oraindik ere, eta bertan, hitz gakoa "boterea" da. Harreman guztietan menderatzailea/mendekoa harremana gertatzen da eta klase, etnia, erlijio edo kultura desberdintasunak ezartzen dira. Baina horien artean nagusitzen dena generoagatiko desberdintasuna da: biztanleriaren erdia emakumezkoek osatzen dugu, baina munduko pobreziaren % 80a biltzen dugu, eta baita analfabetismoaren, langabezia eta jarduera ezaren edo biolentziaren indizerik altuenak ere; biolentzia hori, sarritan era okerrean "etxekoa" izenez ezaguna dena da, emakumezkoen aurkako biolentzia, alegia.

Menderatzailea/mendekoa patroia duten harreman horien ondorioz, sexua/generoa sistema eratzen da. Sistema horrek emakumezkoen eta gizonezkoen artean dauden desberdintasun biologikoak gizarteko desberdintasun bihurtzen ditu eta, desberdintasun horietan oinarrituz, balio maskulinoak femeninoen aurretik jartzen dituen hierarkia ezartzen du. Balio horiek ulertzeko era estereotipatua da eta horren ondorioz gizarteko aurreiritziak sortzen dira, emakumezkoek lanaren esparruan duten parte-hartze mailaren ingurukoak, esaterako.

Harremanen egitura edo sare horretan, azken mendean gizartean izan diren aldaketak direla-eta, emakumezkoak esparru publikoan parte hartzen hasi direla ikus dezakegu.

Enplegura, gizarte-erakundeetara, sindikatueta hieldu dira, baina izan duten eragina gizonezkoek esparru pribatuan izan dutena baina askoz ere txikiagoa izan da. Feminizatutako lanbideek —gizartearen garapenerako erabakigarriak badira ere— ez dute lanbide maskulinizatuek bezain beste prestigio eta, horren ondorioz, laneko baldintzak eta soldatak kaskarragoak dira eta haurrak zaintzeko egindako tartearen negatiboan baloratzen denez, laneratzea berriro ere oztopatuta dago.

Erreferentzia puntu bakarra maskulinoa da eta emakumezkoek historian zehar izan duten zeregina eta gizarteari egin dioten ekarpena ezkutuan geratzen da. Historia, zientzia zein literatura liburuetan begiratu gero, eta ia anekdotazkoa den salbuespenen bat alde batera utzita, emakumezkoak existitu ez direla dirudi.

Gizarte eta kultura guztietan egungo sistema patriarkala jarraitzen dugu. Kanadan, Suedian zein Sudanen, emakumezkoek ez dute berdintasunik gizonezkoekin alderatuta.

Bortziriakenera, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak daude. 2004an egindako egoeraren diagnostikoa da horren erakusgarri. Horixe uzten dute agerian jardueraren eta jardueraren eza-tasek —Jardueraren: Gizonezkoak: % 58,6, emakumezkoak berriz: % 37,8; Jardueraren eza: emakumezkoak: % 62,2, gizonezkoak berriz: % 41,45.

Horretaz gainera, beste hainbat eremutan daude desberdintasunak. Emakumezkoek adar humanistiko eta sozialeko ikasketak aukeratzen dituzte oraindik ere, eta gizonezkoek industriarekin, produkzioarekin zerikusia duten lanbide-ikasketak aukeratzen dituzte.

Aukera hori, gizartean garatzen ditugun emakumezkoen eta gizonezkoen estereotipoetan oinarrituta dago eta, estereotipo horiek direla eta, badirudi emakumezkoak zaintzearekin, hezkuntzarekin edo pertsonetikiko arretarekin zerikusia duten lanpostuetarako "gai" direla eta gizonezkoak produkzio, zuzendaritza eta kudeaketa lanpostuetarako "gai" direla. Halaber, lanpostu horiek emakumezkoenak baina askoz hobeto ordainduta daude eta emakumezkoek dituztenak baina laneko baldintza askoz hobekak dituzte.

Are gehiago, zuzendaritza postuak gizonezkoek hartzen dituzte, "kristalezko sabaia" dago, nahiz eta inguruko emakumezkoek gizonezkoek baina prestakuntza zabalagoa eta sakonagoa duten.

Bestalde, familia-zamak emakumezkoen ardura dira oraindik ere, eta diagnostikoaren dokumentuan ikus daitekeen bezala, "badirudi inork ez diela behar hori kentzen". Ardura eta zeregin horiek ez daude ordainduta eta, gizarte honetan, balio ekonomikorik ez duen horrek ez du balio. Familia-zamen "zoru likatsuak" emakumezkoen karrera profesionalean hainbesteko zama suposatzen du, zein askok alde batera uzten duten bere familiaren alde egiteko.

Hezkuntza-mailetan estereotipo sexistak erreproduzitzen dira eta, familietan ere, berdintasunezkoak ez diren balioak transmititzen ditugu, familia osatzen duten pertsona guztiek izan duten generozko sozializazioaren ondorioz.

Desberdintasunak daudela bistakoa denez, ezinbestekoa da genero ikuspegia bizitzako esparru guztietan sartzea. Geure gizartean, aukera berdintasunaren printzipioa era integralean soilik ezarri daiteke.

Halaxe ulertu dute Nazioarteko Erakundeek eta luzean aritu dira lanean aukera berdintasunaren printzipioa lortu ahal izateko.

EBn, egun, hiru esku-hartze mota daude: lehena legegintza-neurriak dira, bigarrena Ekintza Positiboko neurriak eta, azkenik, aukera berdintasunaren printzipioak egitura-funtsetan eta politika orokorretan duen zeharkakotasuna.

Legegintza-neurrien artean, 1997ko Amsterdameko Ituna dugu; itun horretan berdintasuna EBko printzipio nagusietako bat dela ezartzen da eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko neurriak jasota daude.

EBn ekintza positiboko neurriak, Berdintasun Planak edo Ekintza Positiboko Planak, Europar Erkidegoko Ekintzen Programa izenez dira ezagunak. Egunera arte 5 Programa garatu dira.

Haina zuzen ere, Europar Erkidegoko Ekintzen bosgarren programa (2001- - 2005) da estrategia duala ezartzen duena: alde batetik, zeharkakotasuna, hau da, aukera berdintasunerako printzipioa arlo guzietan, eremu guztietan eta politika guztietan ezartzea; horrekin batera emakumezkoen zuzendutako Ekintza Positiboak (espezifikokoak eta zehatzak) garatzea dago. Bata zein bestea beharrezkoak eta elkarren osagarri dira.

Puntu honetan, Tokiko Erakundeek badute zer esan. Tokiko Erakundeak gizonezko eta emakumezkoen berdintasun errealerantz aurrera egitea ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko, eta horiei mesede egiteko gizartean dugun atal gakoa dira. Nazio, erkidego eta toki mailako Planak dira, nazioarteko erakunde horietatik eratorritako gidalerroak jarraituz, ekimenak lurralde bakoitzaren errealitatearen arabera moldatzen dutenak.

Esan nahi duguna, genero ikuspegia politika eta ekimen guztietan barneratu behar dela da. Hau da, genero ikuspegia errealitatea aztertzeko tresna gisa ezartzeari buruz ari gara, eta horrek zera dakar berarekin, emakumezkoen ekarpenak, errealitateak eta beharrak aintzat hartzea, haien eskubideak gizonezkoek dituztenen parekoak direla onartuz.

Horrek errealitate sozialean emakumezko eta gizonezkoen balio, emozio eta interesen eragina izan behar dela esan nahi du.

FEMPk (Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa), VIII. Asanblada Orokorrean, udalek "desberdintasunak zuzentzearen alde" jarduteko konpromisoa dutela esplizitu bihurtu zuen; horretaz gainera, honako konpromisoak ere badituzte: "errespetu, elkartasun eta berdintasun balioak bultzatzen dituzten eta diskriminazioaren aurkakoak diren ekimenak sustatzea" edo bateratzearen alde egitea "hori baita, funtsezko balioen artean, biztanleen arteko berdintasuna lortu nahi duen gizarte aurreratu batean garapen orekatua lortzeko oinarriko elementua".

FEMPren arabera, "berdintasuna edozein gizarte eraikitzeke orduan nagusitasuna duen elementua da, eta gobernu, gizarte zibil eta gizaki guztiontzako erronka da". FEMPk Emakumezko eta Gizonezkoen arteko Berdintasun Errealia lortzearen aldeko planak errealitate bihurtzeko eremurik onena tokikoa dela dio.

Eta, horretaz gainera, udalei baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak emateko beharra ere onartzen du, berdintasunezkoa den gizartearen alde egin ahal izateko, "xxi mendean garapena eta bakea" lortzeko faktore gako gisa.

"Gizonezko eta emakumezkoen Eskubide eta Bizi-baldintzen arteko Berdintasun Errealaren bidez soilik bermatu dezakegu hazkunde ekonomiko eta bidezkoa eta iraunkorra den garapena."

Pekingo Ekintza Plataformaren Ondorioak.

3. Ekintza Positiboko Plana

EGITURA

Bortziriakoko Ekintza Positiboko Planaren helburua aukera berdintasunaren printzipioa Mankomunitateko udaletako eremu guztietan barneratzea da. Estrategia bikoitz baten bitartez planteatua dago, estrategia duala deritzonaren bitartez: alde batetik, inguru horretan emakumezko eta gizonezkoen artean, lanari, familia-zamen banaketari, kale eta plazen diseinuari edo kirol praktikari dagokionez, dauden desberdintasunak ezabatzeko joera duten ekintza positibo jakinak eta zehatzak diseinatzea. Bestalde, generoa ikuspegia Bortziriakoen aurrera eramaten diren politika, eremu eta ekimen guztietan zeharkako gaia izatearen bitartez.

Plana 10 Esku-hartze Arlotan egituratuta dago: Kultura, Kirola, Hezkuntza, Enplegua, Berdintasun Politiken ardura duen Arloa, Osasuna, Zerbitzu Orokorrak, Gizarte-zerbitzuak, Hirigintza eta Biolentzia.

Arlo bakoitzaren egitura antzekoa da, sarreran justifikazioa dago, Arlo bakoitzaren jarduteko esparruetarako berariazkoa dena; jarraian lortu nahi diren helburuak daude, bakoitzaren barne hartzen diren ekintzekin. Amaieran, horiek aurrera eramateko ardura duten pertsona edo lanpostu arduradunei erreferentzia egiten zaie.

Botziriakentzat diseinatutako Ekintza Positiboko Plan honek malgutasuna du ezaugarri: Udalek ez dute inolako arazorik Planarekin bat egiteko orduan, planaren berezitasunak errespetatzen baitira eta tokiko egituren eta egoera espezifikoen arabera moldatzen baita.

Udalak eta Mankomunitatea elkarlan koordinatuan aritzea ezinbestekoa da Planak aurrera behar bezala egin dezan.

10 Esku-hartze Arloez gainera, Arlo guztiek komunean dituzten helburuei buruzko atala planifikatu dugu, eta baita Planaren helburuak eta ekintzak martxan jarri aurretik aintzat izan behar diren Gomendioen atala ere.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema orientagarria ezarri dugu, genero-adierazleekin, arlo bakoitzak ebaluazioa egin ahal izan dezan, eta Berdintasun Politiken ardura duen Arloari Planaren aurrerapausoen, zailtasunen eta bertan proposatutako ekintzak hobetzeko proposamenen berri eman ahal izan dezan.

IRAUPENA

Bortziriakeko Ekintza Positiboko I Planaren iraupena lau urtekoa da; lau urte horiek igaro ostean, Planak Bortziriakeko biztanleengan izan duen eraginaren Ebaluazio orokorra egin behar da.

ARLO GUZTIEK KOMUNEAN DITUZTEN HELBURUAK

1. Helburua. Genero ikuspegia udaletako eta Mankomunitateko arlo guztietan barneratzea.

1.1 Ekintza. Udaletako langile guztiei eta Mankomunitateko zerbitzuari zuzenduta, genero ikuspegia Arlo guztietan barneratzeko berariazko prestakuntza programatzea.

1.2 Ekintza. Aukera Berdintasunaren printzipioa udalak egiten dituen ekimen guztietan integratzea.

1.3 Ekintza. Udalen eta Mankomunitatearen dokumentazioan hizkera sexista erabiltzen duen edozein irudi, adierazpen eta eduki era progresiboan ezabatzea.

LANAREN AURREKO OHARRAK

Bortziriak berez dituen ezaugarri eta espezifikotasunak direla-eta, eta momentuz Berdintasun Politiken ardura duen Arlorik ez dagoenez, hurrengo orrialdeetan aipatzen diren helburuak eta ekintza zehatzak aplikatu aurretik, ibilbidea ezartzea egokia dela pentsatu dugu.

Arlo guztiek komunean dituzten helburuen atalean aipatzen den bezalaxe, eta genero ikuspegia udaletako ekimen guztietan barneratu nahi badugu, ezinbestekoa da Bortziriak Udaletako arloetan lan egiten duten politikari zein teknikari guztiek **aldez aurretik prestakuntza eta sentsibilizazioa** jasotzea. Genero ikuspegiarekin diseinatutako eta emandako prestakuntzaren helburua, Bortziriak Eskualdeko teknikari eta politikariak (aurrera eramaten dituzten ekimen guztietan berdintasun printzipioaren aplikazioan) inplikatzeko eta sentsibilizatzea da. Langileak Bortziriak Ekintza Positiboko I. Plana aplikatzeko orduan orientatzeko laneko tresna praktikoak eskaini behar dira.

Prestakuntzaz gainera, ekintzak planifikatu, kudeatu eta martxan jartzeko orduan parte hartzen duten politikari, teknikari eta agente sozialak biltzen dituen Batzordea sortzea ere proposatzen dugu. Ekintza Positiboko Planean zehazten den Arlo bakoitzeko Batzorde bana eratu behar da. Batzordeetan dagokion Arloan Plana aplikatzeko oinarriak ezarri behar dira, Bortziriak parte hartzen duten pertsona guztien arteko koordinazioa egon dadin saiatuz.

Horretaz gainera, jarduteko arlo bakoitzean aurretiko laneko lerroak ezarri ditugu.

Isos,

Aukera Berdintasunerako Zerbitzuak

iaranaz.isos@hotmail.com

649 114 520 948 354 105

ESKU-HARTZE ARLOAK

KULTURA ARLOA

Bizitza publikoaren gainerako eremutan bezalaxe, emakumezkoak kulturari ikusezin egin dituzte. Rolak sexuaren arabera banatzearen ondorioz, emakumezkoentzat ez da erraza izan bizitza publikora heltzea eta, hala izan denean, haiek egindako ekarpenak ezkutatu dituzte. Oraindik ere, emakumezkoek kulturari egin dizkioten ekarpenak ez dira behar bezala baloratzen eta ezagutzen.

Bestalde, rolen banaketa hori dela-eta, emakumezkoek ez dute aisialdirako denborarik izan. Eskubide hori ukatzen zaie, haien ordutegiak, besteren artean, familia-zamekin, ez bateratzearekin, lanaldi bikoitzekin bateraezinak direla aintzat izan ez delako. Egun ere, sarritan zaila izaten da emakumezkoentzako euren astialdia nola bete era askean aukeratzea, familiaren astialdia edozein dela ere aukeratzea, alegia.

Kultura garapen pertsonalaren eta aberastasun pertsonalaren sinboloa da. Genero ikuspegia duen eta emakumezkoen beharrak eta eskariak aintzat hartzen dituen kultura planifikatzeko ahaleginak handitzea beharrezkoa da, baina ezin ditugu emakumezkoak erabiltzaile gisa soilik ikusi, sortzaile gisa ere ikusi behar ditugu eta emakumezkoek historiari egindako ekarpenak berreskuratu behar ditugu, haien lanei berriro ere balioa emanaz eta lan horiek hedatuz.

KULTURA ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Udal guztietan kulturaren ardura duten teknikariak ez daudenez, Batzordea Udal bakoitzean kulturarekin zerikusia duten politikari, teknikari eta/edo agente sozialek osatuko dute, Planari jarraiki planifikatzen dituzten ekimenak koordinatzeko helburuz.

Helburuak

1. Helburua. Emakumezkoak kulturara hel daitezen sustatzea.

1.1 Ekintza. Bortziriakoko emakumezkoek zehazki zuzendutako jarduerak kulturalki programatzea. Jarduera horiek (hizketaldiak, irakurketa-taldeak, tailerrak...) emakumezkoen garapen pertsonalari lagundu behar diete eta adin-taldeen behar eta eskariak aintzat izanda programatu behar dira.

2. Helburua. Generoa dela-eta bereizkeriazkoa ez den, eta kidego guztiei moldatuta dagoen kultura-politika programatzea.

2.1 Ekintza. Emakumezkoek eta gizonezkoek kultura-jardueratan era orkatuan parte har dezaten sustatzea; horretarako ordutegiari, informazioa jasotzeari, familia-zamei eta abarri dagokionez, bakoitzak dituen ezaugarri espezifikoak aintzat izan behar dira, pertsona guztien laneko bizitza, familiakoa eta bizitza pertsonalaren bateratzeari lagunduz.

2.2 Ekintza. Biztanleria emakumezko guztiek, garapen pertsonalaren, ongizate fisikoaren eta emozionalaren alderdi gisa, aisialdia izateko duten eskubidearen gainean sentibilizatzea.

2.3 Ekintza. Emakumezkoen jabeak sustatzen duten jarduerak antolatu daitezen bultzatzea.

2.4 Ekintza. Hizkera, irudi eta sinbolo ez sexisten erabilera bultzatzea.

2.5 Ekintza. Liburutegi publikoetan Aukera Berdintasunari (ikasteko aukera berdintasuna barne) lotutako materialak jartzea.

2.6 Ekintza. Martxoaren 8a eta azaroaren 25a ospa daitezen bultzatzea, emakumezkoek historian zehar egindako ekarpenak azpimarratuz.

2.7 Ekintza. Gazteen elkarteak, aisialdiko taldeak eta abar, genero ikuspegia egiten dituzten ekimen guztietan barneratzeko beharraren gainean sentsibilizatzea.

2.8 Ekintza. Erantzunkidetasunaren onurak sustatzeko helburuz, eredu maskulino erantzunkideak erakusten dituzten sentsibilizazio kanpainak eta hainbat jarduera (komiki, kontakizun, marrazketa lehiaketak eta abar) planifikatzea, Bortziriakeko gazteentzat bereziki.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Kultura Batzordea

Elkarlana:

Hezkuntza Batzordea

Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea

Osasun Batzordea

Kirol Batzordea

Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea

Ogasuna

KIROL ARLOA

Agerikoa da emakumezkoek kirolean zuten parte-hartzeak gora egin duela. Baina agerikoak dira ere egun mantentzen diren desberdintasunak. Egun, parte hartzeko aukera eta maila desberdinak, egiten duten kirol kopurua edo kirol jakin bat egiteko heziak izateak mantentzen dituzte indarrean desberdintasun horiek.

Bestalde, oraindik ere emakumezko gutxi daude ardurazko lanpostuetan, esaterako, zuzendari, entrenatzaile, ordezkari, epaile edo jokozain gisa, eta hori bistakoagoa da mailatan zenbat eta gorago egin. Emakumezko horien eredu garrantzitsua da belaunaldien isla izateko, eta beharrezkoa da neskatile, gaztetxo eta emakumezkoek kirolean aukera berdintasuna izan dezaten lortzeko.

Hedabideetan ere, emakumezkoak eta gizonezkoak diren kirolariei ematen zaien tratamendua desberdina dela ikus dezakegu, eta denok ezagutzen dugu hedabideek egungo gizartean duten garrantzia.

Erakunde, ikastetxe eta familiek neska eta emakumezkoek edozein kirol mota egiteko aukera izan dezaten bermatu behar dute, horietan balio eta esperientzia femeninoak barneratuz, garapenaren zati gisa, jada kirol horietan parte hartzen duten emakumezkoak ezagutuz eta baloratuz, eta emakumezkoak kirola euren garapen pertsonalaren zati bezala egitera animatuz.

Izan ere, kirola pertsonen gaitasunak era ezin hobean garatzeko beharrezkoa da. Balioak transmititzen ditu, osasun fisikoa hobetzen du eta kirola egiten duten pertsonen bizitza aberastu dezake.

KIROL ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Udal guztietan kirolaren ardura duten teknikariak ez daudenez, Batzordea Udal bakoitzean kirolarekin zerikusia duten politikari, teknikari eta/edo agente sozialek osatuko dute, Planari jarraiki planifikatzen dituzten ekimenak koordinatzeko helburuz.

Helburuak

1. Helburua. Genero ikuspegia duen kirol-eskaintza planifikatzea

1.1 Ekintza. Neskatilek, nerabeek, gazteek eta helduek kirola ondo pasatzeko, aisialdi gisa eta gorputza, osasun fisikoa, psikologikoa eta harremanetarako osasuna zaintzeko era gisa egin dezaten bultzatzea.

1.2 Ekintza. Kirolaren munduan ardura duten lanpostuetan emakumezkoak egon daitezen sustatzea, entrenatzaile gisa, klubetako zuzendari gisa edo epaile gisa.

1.3 Ekintza. Sexista ez den kirol-hezkuntzarako programak diseinatzea, emakumezko gazte eta helduak emakumezko gutxien dauden kirolletara hel daitezen bultzatuz, eta gizonezko gazte eta helduak femenino bezala kontsideratu diren kirolletara hel daitezen bultzatuz.

1.4 Ekintza. Emakumezkoen adina eta etapa biologikoak (haurdunaldia, erditze-ondoa, menopausia, mantentzea, eta abar) aintzat hartuz, kirol jarduerak antolatzea.

1.5 Ekintza. Baztertuak izateko egoeran dauden emakumezkoak kirol jardueratara hel daitezen erraztea.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Kirol Batzordea

Elkarlana:

Osasun Batzordea

Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea

Kultura Batzordea

Hezkuntza Batzordea

Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea

Ogasuna

Zerbitzu Orokorrak

HEZKUNTZA ARLOA

Familia da lehen agente hezitzailea, izan ere, bertan gertatzen da haurren lehen prozesu sozializatzaila. Bertan, familiako kide bakoitzak dituen rola eta ardurak behatzen, ikasten eta imitatzen dira. Familia gehienetan, oraindik ere, emakumezkoaren eta gizonezkoaren rol berezituak transmititzen dira: emakumezkoak etxearen ardura du eta beraren gain dago lana eta familia bateratzeko ardura; gizonezkoak berriz, ez dira familia-esparruan era erantzunkidean sartu eta haurrentzako eredu estereotipatuak izango dira, haurren itxaropenak baldintzatuko dituztenak. Hori dela eta, familia da sexuagatiko desberdintasunen transmisioa eteteko lehen lekua.

Bigarren agente sozializatzaila eskola da. Hainbat azterlanen arabera, nesken eta mutilen gaitasunak ez dira era berean bultzatzen, ikasketa- eta lanbide-orientazioa sexuak baldintzatzen du, eta erabiltzen diren material, dokumentu eta irudietan emakumezkoak gutxiesten dituen, eta ikusezin bihurtzen dituen hizkera maskulinoa erabiltzen da.

Zaintzea, oraindik ere, gehienbat emakumezkoen ardura da: zeregin hori atsegina bada ere, eramaten zaila den zama erantsia du, izan ere, emakumezkoen bizitza profesionala baldintzatzen du (bai lan egiteko orduan, bai mailaz igotzeko orduan).

Erantzunkidetasunean, zaintzan oinarritutako etikan hezteko hezkuntzak duen erronka da, baina haurrek eta gazteek balio horiek jabetzen badituzte eta praktikan jartzen badituzte, Bortziriakoko gizartea aberatsagoa izango da.

Hezkuntza emakumezkoen eta gizonezkoen artean, oraindik ere, dauden desberdintasunak ezabatzeko oinarritzko pilareetako bat da.

HEZKUNTZA ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Bortziriakeko ikastetxeetako Gurasoen Elkarteek hezkuntzaren alde era aktiboan egin dute lan. Arlo honetan gomendagarria da, aurretiko urratsa gisa, Bortziriakeko Gurasoen Elkarrekin guztiak antolatzea Planaren hezkuntza arloaren kudeaketaren buru izan daitezen; elkarrekin Elkartearen Federazio bat bezala jardungo dute baterako hezkuntzaren alde. Federazioari aukera berdintasunaren eta genero ikuspegiaren gaineko prestakuntza eta sentsibilizazioa eman behar zaio.

Helburuak

1. Helburua. Sexuen arteko berdintasunaren aldeko baterako hezkuntzaren ereduak hedatzea

1.1 Ekintza. Ikastetxeetatik estereotipo sexistekin haustera eta berdintasunezko balioetan oinarritutako hezkuntza garatzera bideratuta dauden ekintzak bultzatzea.

1.2 Ekintza. Berdintasunezko ereduak hedatzea, femeninoak zein maskulinoak, belaunaldi berrientzat erreferentzia izan daitezen.

1.3 Ekintza. Joko eta jostailu ez sexistek pertsona guztien garapen integralean duten garrantziaren gaineko sentsibilizazioa egitea.

1.4 Ekintza. Emakumezkoek historian zehar egindako ekarpenak agerian uztea.

1.5 Ekintza. Irakasleak eta Gurasoen Elkarteak mutikoen artean zaintzaren eta erantzunkidetasunaren etika bultzatzeko beharraz sentsibilizatzea, aisialdiko eskolekin koordinatuz.

1.6 Ekintza. Haurtzarotik, nesken artean zuzendaritzarako gaitasunak, auto-estimua sustatzekoak, esparru publikoan parte hartzeko gaitasunak eta abar jabetu ditzaten sustatzea, aisialdiko eskolekin, administrazioarekin, Gurasoen Elkarteekin eta irakasleekin koordinatuz.

1.7 Ekintza. Irakasleek hezkuntza materialetan izan daitezkeen eduki, testu eta irudi sexistekiko jarrera kritikoa izan dezaten bultzatzea, materialen berrikuspena proposatuz.

1.8 Ekintza. Ikastetxeek emakumezko eta gizonezkoen Aukera Berdintasunaren alde antolatzen diren ekintzetan parte har dezaten bultzatzea.

1.9 Ekintza. Nerabezaroan neska eta mutilen arteko afektibitate- eta sexu-hezkuntza erantzunkidea sustatzea.

1.10 Ekintza. Neskak eta mutilek edozein kirol egin ahal izan dezaten sustatzea, sexua dela-eta inolako bereizkeriarik egin gabe.

2. Helburua. Ikastetxeetan pertsona bakoitzaren gaitasunetan oinarritzen den eskola-orientazioa eskaintzea, pertsona horien sexua alde batera utzita eta Enplegu-Batzordearekin koordinatuz

2.1 Ekintza. Haurtzarotik haurtzaroaren beraren eta nerabezaroaren gaitasun eta ahalmenen garapen integrala sustatzea, pertsonak lanean, kirolean eta bizitza pribatuan inolako estereotipo sexistarik gabe garatu ahal izan daitezen.

2.2 Ekintza. Enplegu Batzordearekin koordinatuz, nesken artean Bortziriak lanpostuak eskaintzen dituzten lanbideak (eta emakumezkoen ordezkapen gutxi dutenak) sustatzea eta mutilen artean zaintzearekin lotuta dauden lanbideak sustatzea.

3. Helburua. Emakumezkoen kidegoak helduentzako prestakuntza- -eskaintzara hel daitezen bultzatzea

3.1 Ekintza. Baztertuak izateko arriskuan dauden emakume helduen kidegoak pertsona helduentzako prestakuntzara hel daitezen erraztea, horretarako elkarrekin eta GKEekin koordinatuz.

3.2 Ekintza. Prestakuntza arautu gutxi duten emakumezkoak helduentzako prestakuntza arautuaren eskaintzara hel daitezen bultzatzea.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Hezkuntza Batzordea

Elkarlana:

Osasun Batzordea

Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea

Kultura Batzordea

Kirol Batzordea

Enplegu Batzordea

Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea

Ogasuna

Zerbitzu Orokorrak

ENPLEGU ARLOA

Bortziriaken Nafarroako beste eremutan baino emakume langabetu gutxiago daude. Hala ere, horrek ez du esan nahi, lanari dagokionez, emakumezko eta gizonezkoen artean dauden desberdintasunak desagertu direnik.

Ezkutuko lana, laneko baldintzak, —emakumezkoen lanpostuen eta gizonezkoen lanpostuen artean dauden soldata-desberdintasunak barne—, industrian lanean ari diren emakumezkoen kopuru txikia, —administrazioko lanpostuak eta garbitzaileak alde batera utzita—, edo emakumezkoek mailaz igotzeko dituzten zailtasunak, emakumezkoek Bortziriaken lanari dagokionez jasan behar dituzten desberdintasunen adibideak dira. Eta ezin ditugu alde batera utzi laneko arriskuen prebentzioa edo lanpostuen diseinua, genero ikuspegirik gabe planifikatuta eta kudeatuta daude eta.

Emakumezkoak orain arte *maskulinizatuta* egon diren lanpostu eta lanbideetan sar daitezen bultzatu behar dugu, lehenetsuna pertsonen gaitasun eta ahalmenei emanez eta haien sexuan alde batera utziz; horretarako enplegu-zerbitzuekin, orientazio-zerbitzuekin eta enpresekin besoz-beso egin behar dugu lan. Baina, horretaz gainera, biztanleria erantzunkidetasunaren inguruan sentsibilizatu behar dugu, emakumezkoak lan-mundura heldu arren, gizonezkoek ez baitute dagokien etxearen eta familiaren zaintza eta arretaren zatia bere gain hartu.

Enpresak eta Administrazioa gizartearen zati bat dira, beraz, ezin dute biztanleriak bateratzeko duen beharra alde batera utzi. Ardura sozialagatik, zuzena delako egin behar dute, eta bateratze-neurriek produktibotasunean, motibazioan, leialtasunean edo errentagarritasunean eragiten dute onuragatik inplikatu behar dira.

Hona hemen emakumezko eta gizonezkoen arteko aukera berdintasun errealak lortzeko orduan dauden zenbait aukera: kalitatea eta bermeak dituen autoenplegua eta emakumezkoak teknologia berrietara eta enplegua sortzen duten alor berrietara heltzea eta bertan mailaz igotzea.

Entitate publiko eta pribatuak Bortziriakako emakumezkoen eskariak jaso behar dituzte ingurua etorkizunean garatu dadin bermatu ahal izateko; emakumezkoen kalitatezko enplegua posible izan dadin, laguntza tekniko, material eta finantzieroa ekarri behar dituzte entitate horiek.

ENPLEGU ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Komenigarria da arloko helburu eta ekintzak martxan jarri aurretik Cederna Garalur era aktiboan inplikatzeko eta Udalekin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin koordinatzea. Komeni da ere eskualdean ordezkaturik dauden erakunde sindikalen babesaren ere izatea.

Helburuak

1. Helburua. Laneko bizona, familiakoa eta bizona pertsonala bateratzeko politikak bultzatzea

1.1 Ekintza. Negoziazio kolektiboan bateratzeko klausulak sar daitezen sustatzea.

1.2 Ekintza. Laneko bizona, familiakoa eta bizona pertsonalak bateratzen laguntzeko baliabideak sar daitezen sustatzea.

1.3 Ekintza. Bateratzea familiaren eta gizartearen gai bezala eta enpresen, administrazioaren eta biztanleriaren (eta ez soilik emakumezkoen) parte-hartzea behar duen gai bezala ulertzeko sentsibilizazio kanpainak antolatzea.

1.4 Ekintza. Laneko bizona, familiakoa eta bizona pertsonala bateratzeak enpresan duen eraginaren onura hedatzea.

1.5 Ekintza. Enpresaburuen artean laneko bizona, familiakoa eta bizona pertsonala batera daitezen sustatzea, horrek dituen onurak azpimarratuz.

2. Helburua. Emakumezkoak laneratu daitezen eta bertan mailaz igo daitezen sustatzea

2.1 Ekintza. Sindikatuekin batera, emakumezkoen laneko eskubideak aldarrikatzera eta bultzatzera zuzenduta dauden sentsibilizazio kanpainak koordinatzea.

2.2 Ekintza. Enpresaburuen eta biztanleriaren artean emakumezkoak kontratatzeke orduan, eta amatasun-baja aldietan, haurdunaldian zehar arriskua dutenean eta abarretan horiek ordezkatzeko orduan dauden laguntzak hedatzea.

2.3 Ekintza. Haurrak eta menpeko diren pertsonak zaintzeko lan-merkatutik atera diren emakumezkoentzako, Bortziriakeko enpresek eskatzen dituzten lanpostuetarako gaitze eta birgaitze programak diseinatzea, jabe-kuntzarako prestakuntzari arreta berezia eskainiz.

2.4 Ekintza. Enpresaburuekin koordinatuz, enpresek eskatzen dituzten eta emakumezkoen ordezkapen eskasa duten lanpostuetarako emakumezkoen zuzendutako berriazko prestakuntza programatzea, jabe-kuntzarako prestakuntzari arreta berezia eskainiz.

2.5 Ekintza. Cederna Garalurrekin koordinatuz, emakumezkoen ordezkapen eskasa duten lanpostuetarako prestatutako emakumezkoak kontratatu eta mailaz igo ditzaten enprekin hitzarmenak bultzatzea.

2.6 Ekintza. Emakumezkoek bere burua enplegatu dezaten babestea, horretarako dirulaguntzak, laguntza finantziarioak, prestakuntza eta aholkularitza erabiliz.

2.7 Ekintza. Bortziriakeko enpresatan emakumezkoak kontratatzeari eta mailaz igotzeari buruz oraindik ere dauden estereotipoak ezabatzeke sentsibilizazio kanpainak diseinatzea, balioa sexuari eman beharrian, emakumezkoen gaitasunei berriro ere emanez.

2.8 Ekintza. Negoziazio kolektiborako politika planifikatzea

2.9 Ekintza. Laneko orientabiderako zerbitzuen bitartez, emakumezkoen tradiziozkoak ez diren arloetan eta enplegua sortzen duten alor berrietan parte hartzeko gogoia piztea.

2.10 Ekintza. Sindikatuentzako, parte hartzen duten agente sozialentzako, enpresentzako eta administrazioarentzako berdintasunaren eta genero ikuspegiaren gaineko prestakuntza sustatzea.

2.11 Ekintza. Enpresaburuekin eta erakunde sindikalekin koordinatuz, enpresatan genero ikuspegia sartzeko negoziazio kolektiborako politika planifikatzea, lana egiten duten emakumezkoen hautaketa eta mailaz igotzeko prozesuei, laneko baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari arreta berezia eskainiz.

2.12 Ekintza. Bortziriakean egiten diren hautaketa eta mailaz igotzeko prozesuetan genero ikuspegia barneratzea; horretarako langile guztiei, enpresei eta horien ardura duten erakundeei zuzendutako prestakuntza, materialak eta sentsibilizazioa erabili behar dira.

2.13 Ekintza. Bateratzeko baliabideetara heltzeko orduan, banatu gabeko familia-zamak dituzten emakumezkoek, baliabide eskasak dituztenei eta generozko biolentziaren biktima izan direnei lehentasuna ematea.

3. Helburua. Emakumezkoek dagokien ezkutuko ekonomia murriztea

3.1 Ekintza. Menpeko diren pertsonak zaintzeko zerbitzuak eta gizarte-ekonomia duten enpresak, eta normalean ezkutuko ekonomian dauden eta emakumezkoek egiten dituzten bestelako zerbitzuak sor daitezen babestea.

Isos,

Aukera Berdintasunerako Zerbitzuak

iaranaz.isos@hotmail.com

649 114 520 948 354 105

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Enplegu Batzordea

Elkarlana:

Hezkuntza Batzordea

Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea

Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea

Ogasuna

Zerbitzu Orokorrak

BERDINTASUN POLITIKEN ARDURA DUEN ARLOA

Ekintza Positiboko Plan batean, Plana martxan jarriko duen, eta Planaren buruzagitzaren eta planifikazioaren ardura izango duen Arloa behar da. Bortziriaken, oraingoz, ez dago Berdintasun Politiken ardura duen Arlo zehatzik, beraz, oso garrantzitsua da Arlo hori sortzea, Plana behar bezala garatu ahal izateko.

Berdintasun Politiken ardura duen Arloak Ekintza Positiboko Planean islatzen diren berdintasun politikak martxan jartzeko orduan, udaletako arloei bultzatzeko eta aholkuak emateko erronkari aurre egin behar dio. Hau da, udaletako arloetako politiketan generoa zeharkako gaia izan dadin bermatu behar du.

Zeharkakotasunak genero ikuspegia esparru publikoko arlo guztiek aurrera eramaten dituzten politika, programa eta ekimen guztietan sartu behar dela suposatzen du, horrek zeharkakotasun hori esparru pribatura ere igaroko dela eragingo baitu.

Zeharkakotasunaz gainera, biztanleria berdintasunaren eta dauden desberdintasunak ezabatzearen gainean sentsibilizatu behar du Arloak, emakumezkoek bizitza publikoko esparru guztietan parte har dezaten bultzatuz, haien itxaropenak, beharrak eta eskariak aintzat hartzen direla zainduz.

Eta, azkenik, Plana hedatu behar du, haren garapena sustatuz eta bultzatuz, eta dauden arloek egiten dituzten ekimenak ebaluatuz.

BERDINTASUN POLITIKEN ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Beharrezkoa da Berdintasun Politiken ardura duen Arloa sortzea. Arlo hori da, hain zuzen ere, udaletako eta eskualdeko ekimen guztietan genero ikuspegiaren zeharkakotasunaren kudeaketa eta planifikazioaren buru izango dena, eta baita horien ebaluazioaren ardura izango duena ere.

Arloaren funtzionamendua ezin hobea izan dadin, ezinbestekoa da arloari baliabideak (giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak) ematea. Arloaren kudeaketa Aukera Berdintasunaren Teknikari batek egin behar du, ezinbestekoa baita Arloa zuzentzen duen pertsonak Ekintza Positiboko Planen kudeaketa eta planifikazioan berezituta dagoen genero ikuspegia izatea.

Helburuak jarraian aipatzen direnak dira: biztanleria aukera berdintasunaren eta egungo desberdintasunak ezabatzearen gainean sentsibilizatzea, arlo guztien arteko koordinazioa bultzatzea, eta horretarako adorea ematea, eta Plana ezarri eta garatu dadin bultzatzea, horretarako Plana hedatuz, haren kudeaketa planifikatuz eta arloek egindako ekimen guztiak ebaluatuz, ekimen horiek Bortziriakeko biztanleriaren pertsonen arteko harremanetan izan duen eragina baloratuz.

Pertsona hori izan behar da Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea eratzeko arduraduna; Batzordea Bortziriakeko bizitzan parte hartzen duten teknikari, politikari eta agente sozialek osatuko dute, baina pertsona horiek, aurrez, genero ikuspegiaren eta aukera berdintasunaren gainean behar duten prestakuntza jaso behar dute.

Helburuak

1. Helburua.

Bortziriakeko biztanleria emakumezko eta gizonezkoen arteko Berdintasun Errealia ezartzeko beharraren gainean sentsibilizatzea.

1.1 Ekintza. Bortziriaken oraindik ere emakumezkoen eta gizonezkoen artean dauden desberdintasunen inguruan, eta horiek ezabatzeko beharraren inguruan biztanleria sentsibilizatzea.

1.2 Ekintza. Bortziriakeko kidego sozial guztientzako genero ikuspegiaren gaineko prestakuntza planifikatzea.

1.3 Ekintza. Emakumezkoen kidegoek Bortziriakeko bizitza politiko eta publikoan parte har dezaten sustatzea.

1.4 Ekintza. Bortziriakeko emakumezkoen jabekuntzaren gaineko prestakuntza sustatzea.

1.5 Ekintza. Bortziriakeko gizonezkoek zuzendutako sentsibilizazio kanpainak planifikatzea, erantzunkidetasunak gizonezkoentzat beraiantzat eta haien familientzat dituen onurak erakutsiz.

1.6 Ekintza. Estereotipo sexistengandik banantzen diren bestelako gizarte-erreferentziak sustatzea.

2. Helburua. Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasun Errealak lortzeko parte hartzen duten arlo guztien arteko koordinazio errealak bultzatzea.

2.1 Ekintza. Parte hartzen duten udaleko arloekin gaien araberrako topaketak antolatzea, emakumezkoen kidegoen parte-hartzea sustatuz.

2.2 Ekintza. Parte hartzen duten arlo guztiekin koordinatuz, tratu txarrak jaso dituzten emakumezkoentzako prebentzio eta arreta gaietan jarduteko protokoloa egitea.

3. Helburua. Ekintza Positiboko I. Plana ezarri eta gara dadin bultzatzea

3.1 Ekintza. Bortziriakoko Ekintza Positiboko I. Plana, bere helburuak, ekintzak eta oinarriak Bortziriakoko biztanleen artean hedatzea.

3.2 Ekintza. Bortziriakoen emakumezkoen eta gizonezkoen Berdintasun Errealak mailaka ezarri dadin, urteko laneko programa planifikatzea.

3.3 Ekintza. Urteko ebaluazioaren bitartez eta arlo guztiak koordinatuz, ezarpenaren jarraipena egitea.

4. Helburua. Funtzio-aniztasuna duten emakumezkoek aldi berean pairatzen dituzten diskriminazioak agerian uztea.

4.1 Ekintza. Funtzio-aniztasuna duten emakumezkoekin lan egiten duten kidego guztietan genero ikuspegia barneratu dadin bultzatzea.

4.2 Ekintza. Biztanleria funtzio-aniztasuna duten emakumezkoek aldi berean pairatzen duten diskriminazioaren gainean sentibilizatzea.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Berdintasun politiken ardura duen Batzordea

Elkarlana:

Udaleko gainerako arloak

OSASUN ARLOA

OMEk, Osasunaren Munduko Erakundeak *Osasuna* terminoa honela definitzen du: *“Ongizate Fisiko, Mental eta Sozialaren Egoera, bizitzako esparru guztiak barne hartzen dituen, eta lan egiten dugun eta bizitzen dugun gizarte motari lotuta dagoena (...)”*. Baina ongizate hori lortzeko orduan oztopoak daude, osasuna ez baita genero ikuspegiarekin tratatzen.

Emakumezkoen Osasunaren trataera ez da gizonezkoena bezalakoa izan behar, emakumezkoek bestelako egoera, gaixotasun, ohitura, ezaugarriak eta abar dituztelako. Osasuna, biologiaz gainera, bestelako alderdiek ere baldintzatzen dute, esaterako, emakumezkoen gizarteko testuinguruak, ekonomiakoak eta politikokoak. Emakumezkoak familiako gainerako kideen osasuna zaintzeaz arduratzen dira eta ez dira beraien ongizate propioaz arduratzen. Lanaldi bikoitza, lanpostuen egonkortasun eza, eta lanpostuak (laneko baldintzak eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak) diseinatzeko orduan genero ikuspeirik ez egotea bezalako alderdiek emakumezkoen bizi-kalitatea kaltetzen laguntzen dute, estresa, antsietatea, larritasuna edo depresioa eraginez. Ezin dugu ahaztu biolentzia matxista, emakumezkoek emakumezko izate hutsagatik pairatzen duten biolentzia, alegia, emakumezkoen osasun fisiko eta psikikoa hondatzen du eta.

Bestalde, zenbait egoera zehatzek (esaterako, nerabezaroa, birsortzeko garaia eta, bereziki, menopausia, sarritan habi hutsaren sindromeari lotuta dagoena) estres, antsietate edo depresio handiagoa eragiten dute, eta horiei fibromialgia edo emakumezkoek bularreko minbizia zein berezitasunekin bizitzen duten (gaixotasunaz gainera, alderdi fisikoa ere badago) gehitu behar dizkiegu; horiek guztiak era integralean tratatzeak merezi du.

Prebentzio-sistemak indartzeaz gainera, beharrezkoa da desberdintasun horien arazoietan lan egitea, desberdintasun horiek ezabatuko dituzten neurriak aplikatuz.

Genero ikuspegia duen osasuna emakumezko eta gizonezkoen Aukera Berdintasuna eraikitzeko funtsezko pilareetako bat da.

OSASUN ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Osasun Arloan, jada, badago Bortziriakeko eskualdeko Osasun Kontseilua. Ekintza Positiboko Planaren bitartez figura hori sustatu nahi dugu, Plana Osasun gaietan ezartzeko erakunde pilotu bihurtuz.

Helburuak

1. Helburua. Bortziriakeko emakumezkoentzat berariaz egindako osasun integralaren politika diseinatzea

1.1 Ekintza. Bortziriak emakumezkoentzako arretarako osasun integralaren zerbitzua sustatzea.

1.2 Ekintza. Dauden elkarrekin eta GKEekin koordinatuz, baztertuak izateko arriskuan dauden emakumezkoentzat (bereziki alargunentzat, emakumezkoak diren etorkinentzat, funtzio-aniztasuna dutenentzat edo familia-zamak dituztenentzat) berariaz egindako osasun eta ongizaterako prebentzio eta hezkuntza programak bultzatzea.

1.3 Ekintza. Emakumezkoen bizitzaren etapetara (hala nola, menopausia, haurdunaldia eta erditze-ondoa, habi hutsaren sindromea edo zaintzaileak diren emakumezkoak) moldatutako prebentzio eta arreta programak —berariazkoak eta integralak— garatzea, alderdi psikologiko eta somatikoei arreta berezia eskainiz.

1.4 Ekintza. Irakasleei, hezitzaileei, aisialdiko langileei zein nerabeei zuzendutako afektibitate- eta sexu-hezkuntza programak planifikatzea; programa horietan kontrazepzio metodoen erabileran erantzunkidetasuna bultzatu behar da eta afektibotasuna harremanetarako baliabide gisa sustatzeaz gainera, bikoteen arteko errespetuzko eta berdintasunezko tratua ere sustatu behar da.

1.5 Ekintza. Emakumezkoen laneratzea bazterrekoa izatearen, eta lana egiten duten emakumezkoen eragiten dien lanaldi bikoitzaren ondorioz sortzen diren laneko osasun arazoak zein diren aurkitzea.

1.6 Ekintza. Erantzunkidetasun ezak eta laneko bizitza (bai ordaindua, bai ordaintzen ez dena), familiakoa eta bizitza pertsonala ez bateratzeak emakumezkoen osasun fisiko zein psikikoan eragiten dituen ondorioen inguruan, Bortziriakoko biztanleriari zuzendutako sentsibilizazio eta informazio programa bultzatzea.

2. Helburua. Generozko biolentziaren biktima diren emakumezkoentzako arreta integrala sustatzea

2.1 Ekintza. Parte hartzen duten gainerako arloekin koordinatuz, Nafarroako Gobernuak generozko biolentziaren biktima diren emakumezkoak prebenitzeko eta horiek aurkitzeko duen jarduteko protokoloa sustatzea, inguruko ezaugarrietara moldatuz.

2.2 Ekintza. Biztanleentzat emakumezkoen aurkako biolentziaren gaineko sentsibilizazio kanpainak planifikatzea, tratu txarrak ematen dituzten pertsonetikiko zero tolerantzia sustatuz.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Osasun Batzordea

Elkarlana:

Osasun Etxeak

Hezkuntza Batzordea

Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea

Enplegu Batzordea

Kultura Batzordea

Kirol Batzordea

Hiritarrak Babesteko Batzordea

Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea

Ogasuna

Zerbitzu Orokorrak

ZERBITZU OROKORREN ARLOA

Administrazioa, biztanleriaren gertueneko erakunde politikoa denez, beste erakundeentzako eta biztanleria osoarentzako erreferentziazko eredu bihurtu behar da, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasunaren alde eginez, dauden bereizkeriak ezabatuz eta zailtasun horiek indarririk gabe uzten dituzten neurri positiboak bultzatuz.

Konstituzioak berak hala bermatzen du 9.2 artikuluan, eta baita Nafarroako Tokiko Administrazioak ere, 9.2.1 artikuluan; *"tokiko korporazioek biztanle guztiek tokiko bizitzan parte hartzen dutela erraztu behar dutela (...)"* ezartzen dute.

Hori dela eta, funtsezkoa da Europar Kontseiluak ezartzen duenaren arabera, politika arruntetan genero ikuspegia sartu behar duten pertsonen prestakuntza izatea, emaitzak onak lortzeko behar adina giza- eta finantza-baliabide egotea, eta emakumezko eta gizonezkoen artean dauden desorekak gainditzeko nahia eta konpromisoa izatea, desorekak sortzen dituzten arazoak ezabatuz, emakumezkoek erabakiak hartzeko orduan parte hartzen dutela bermatuz eta haien balio, interes eta esperientziekin aintzat hartzen dituztela bermatuz.

Arlo honetan lan egiten duten emakumezko zein gizonezkoak genero desberdintasunekiko sentiberak izan behar dira eta, haien lanaren bidez, sexuen arteko desberdintasunik ez duen gizarte justua lortzeko desberdintasunak gainditzen lagundu behar dute.

ZERBITZU OROKORREN ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Planean arlo honetarako planifikatutako ekimenak aurrera eramateko ardua duen Zerbitzu Orokorraren Batzordea, Udal bakoitzeko teknikari eta/edo politikariek osatuko dute.

Helburuak

1. Helburua. Zerbitzu Orokorren Arlotik, aurrera eramaten diren ekimen guztietan genero ikuspegia barneratzea.

1.1 Ekintza. Arloko langileentzako genero ikuspegiaren eta aukera berdintasunaren gaineko prestakuntza diseinatzea.

1.2 Ekintza. Arloak egiten duen dokumentazio guztian hizkera eta irudiak era ez sexistan erabil daitezen sustatzea.

1.3 Ekintza. Udaletako langileen hautaketa eta mailaz igotzea berdintasunezko balioetan oinarritu daitezen sustatzea, udaletako eta Mankomunitateak azpikontrataturako enpresetako lanpostu eta mailatan emakumezko eta gizonezkoen presentzia orekatua bultzatuz; familia-zamak dituzten eta bakarrik dauden emakumezkoentzako, tratu txarrak jaso dituztenentzako, baliabide urriak dituztenentzako edo funtzio-aniztasuna dutenentzako lehentasunezko irizpideak ezarriz.

1.4 Ekintza. Udaleko negoziazio kolektiboan Aukera Berdintasuna sustatzen duten klausulak barnera daitezen bultzatzea.

1.5 Ekintza. Udaleko zerbitzuak, elkartutako zerbitzuak eta beste Administrazioetako zerbitzuak jasotzen dituen informazio-txostena egitea, zerbitzu horien zereginak, kokalekua, telefona eta abar zein diren zehaztuz. Txostena Mankomunitatean egiten diren hizkuntza guztietan idatzi behar da, biztanleriaren artean banatu ahal izateko eta inor erroldatzen denean ale bat derrigorrez eman ahal izateko.

1.6 Ekintza. Mankomunitateak eta Udalek Aukera Berdintasunaren alde egiten diren ekimen eta oroitzapenak babestea.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Zerbitzu Orokorren Batzordea

Elkarlana:

Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea

Ogasuna

GIZARTE-ZERBITZUEN ARLOA

Emakumezkoak familiaren bitartekariak dira eta gizarte-zerbitzuak gehien erabiltzen dituzten pertsonak dira. Alde batetik, familiarentzako zerbitzuak eskatzeko (familiaren kudeaketaren arduradunak baitira); bestalde, beraien buruarentzako zerbitzuak eskatzeko, pobrezia geure gizartean, oraindik ere, feminizatua dagoenez, emakumezkoak baitira gehien gutxietsitako pertsonak (senarrik ez duten amak, bizikidearengandik banandu direlako, dibortziatu direlako, alargundu direlako, bizikidea kartzelan edo ospitalean sartu dutelako, gutxieneko errenta duten alargunak, eta beste hainbat). Gizonezkoekin alderatuta dauden desberdintasunak berriro ere agerikoak dira, emakumezkoen pobrezia berezko baliabideak ez izateak eragiten baitu.

Beraz, hein handi batean, emakumezkoek lan merkatuan sartzeko eta bertan mantentzeko dituzten baldintzek, emakumezkoek gizarte-bazterkeria jasateko duten arriskuarekin zerikusia dute.

Emakumezkoak, zaintzaileak diren heinean (sarritan gaixo dauden pertsonak zaindu behar dituzte), laneko bizitza, familiakoa eta bizitza pertsonala bateratzearen arduradunak dira; euren bizi-kalitatea eta euren emozio- eta gizarte-ongizatea ahultzen dira, eta horrek laneratzea eta lanean mailaz igotzea zailtzen du.

Beharrezkoa da beraz, emakumezko berriek gizarte-bazterkeriak jasan dezaten prebenituz, desberdintasunak zuzentzeko, eta emakumezko askok jasaten dituzten desberdintasunak zuzentzeko ahaleginak batzea.

GIZARTE-ZERBITZUEN ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Bortziriakeko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea jada badagoenez, Mankomunitateak berak izango du dagokion jarduteko arlorako planifikatutako ekimenak kudeatzeko ardura.

Helburuak

1. Helburua. Genero ikuspegia duen gizarte-zerbitzuen politika bultzatzea

1.1 Ekintza. Bortziriakeko biztanleen artean Bortziriakeko emakumezkoek dituzten eskubide, laguntza eta baliabideak hedatzea.

1.2 Ekintza. Baztertuak izateko arriskuan dauden emakumezkoentzako (hala nola, etorkinak, funtzio-aniztasuna dutenak, baliabide gutxi dituzten emakumezkoak eta banatu gabeko familia-zamak dituztenak) prestakuntza, birgaitzea eta aholkularitza planifikatzea, laneskua behar duten lanbide eta lanpostuetan laneratu daitezzen.

1.3 Ekintza. Enplegu Batzordearekin koordinatzea, Bortziriakeko enplegu programetan banatu gabeko familia-zamak dituzten emakumezkoek, baliabide gutxi dituztenei edo generozko biolentziaren biktima izan diren emakumezkoek lehentasuna eman diezaieten.

1.4 Ekintza. Arreta integralaren alde egitearren, generozko biolentziaren biktima diren emakumezkoen prebentzioan eta arretan parte hartzen duten arlo guztien arteko koordinazioa sustatzea.

1.5 Ekintza. Nafarroako Gobernuko Jarduteko Protokoloa aplikatu ahal izateko, biolentzia sexistaren biktima diren emakumezkoen prebentzioan eta arretan parte hartzen duten gainerako arloekin eta Osasun Batzordearekin elkarlanean aritzea, Protokoloa inguruko espezifikotasunetara moldatuz.

1.6 Ekintza. Tratu txarrak ematen dituzten pertsonetikiko zero tolerantzia sustatzea.

1.7 Ekintza. Gainerako Batzordeekin koordinatuz, zaintzaileak diren emakumezkoentzako, habi hutsaren sindromea duten emakumezkoentzako, familia-zamak dituzten emakumezkoentzako eta abarrentzako berariazko arreta eta arreta integrala sustatzea.

1.8 Ekintza. Bereziki Bortziriakeko emakumezkoek zuzenduta dauden eta jarrera aldatzea eta auto-estimua indartzea ekarriko duten jarduerak bultzatzea.

1.9 Ekintza. Hainbat baldintzapean direla-eta, gizarteari dagokionez, desabantailan dauden emakumezkoek jarrera aldatzea eta auto-estimua indartzea ekarriko duten jardueratan parte har dezaten sustatzea.

1.10 Ekintza. Estereotipo sexistengandik urruntzen diren bestelako gizarte-erreferenteak sustatzea, esaterako, Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuan eta abarretan gizonezkoak kontratatuz.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea

Elkarlana:

Kultura Batzordea

Hezkuntza Batzordea

Osasun Batzordea

Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea

Ogasuna

Zerbitzu Orokorrak

HIRIGINTZA ARLOA

Udalek garraioari, etxebizitzari, kaleetako segurtasunari eta ingurumenari buruz hartzen dituzten erabakiek, hein handi batean, emakumezkoen bizitzan eragiten dute.

Emakumezkoek, hainbat arrazoi direla medio, ez dituzte autoak gizonezkoek bezainbeste erabiltzen eta, hori dela eta, garraio publikoaren behar handiagoa dute; garraio hori ez da existitzen Bortziriakoko hainbat herritan eta beste batzuetan oso urria da. Garraio publikoaren menpe egoteak, zenbait arazo aipatzearren, emakumezkoentzako mugikortasun, bateratze, aisialdi edo enplegu arazoak eragiten ditu.

Bestalde, etxebizitza Bortziriakoko arazoetako bat bezala planteatu da, batez ere gazteei eragiten dien arazo bezala. Arazo hori larriagoa da familiako buru diren emakumezkoen kasuan, guraso bakarreko etxeen kide baitira; familia-zamek edo generozko biolentziaren biktima izateak arazo hori areagotzen dute.

Herriak (argiztapen txarraren, zokoen, heltzeko zailtasunak dituzten lekuen edo gaizki komunikatutako lekuen ondorioz) seguruak ez izatea emakumezkoen biziarentzako arrisku larria da.

Eta, ingurumenari dagokionez, emakumezkoek beti izan dute harekiko harreman oso estua, historian zehar tradizioz egin dituzten produkzio eta birsortze lanak direla eta.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da genero ikuspegia sartzea, Bortziriakeko herrien arteko komunikazioak hobetuz, familia-zamak dituzten eta generozko biolentziaren biktima diren emakumezkoak babestutako etxebizitzetara heltzeari lehentasuna emanez, eta emakumezkoentzat arriskutsuak diren tokietan segurtasuna hobetuz.

Beijingeko Emakumezkoen IV. Mundu Konferentziaren arabera, garapen iraunkorra (ingurunearen errespetua bermatzen duen eta egun munduan bizi garenon eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea bermatzen duen garapena) lortzeko emakumezko eta gizonezkoen berdintasunezko parte-hartzea aintzat izan behar da.

HIRIGINTZA ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Hirigintza Arloa da Bortziriaken gehien garatuta dauden arloetako bat. Udal guztietan hirigintza gaien ardura duen politikari bana dute, beraz, pertsona horiek izango dute Plana, hirigintza gaietan, era koordinatuan planifikatuko duen Hirigintza Batzordea eratzeko ardura.

Helburuak

1. Helburua. Genero ikuspegia duen hirigintza-programazioa bultzatzea

1.1 Ekintza. Hirigintzari dagokionez, udalean aurrera eramaten diren ekimen guztietan emakumezkoen kidegoek parte har dezaten bultzatzea.

1.2 Ekintza. Garraio publikoa Bortziriakeko emakumezkoen beharren arabera moldatzea.

1.3 Ekintza. Emakumezkoen mugikortasuna hobetzeko helburuz, oztopo arkitektonikoak ezabatzen joateko hirigintza-politika programatzea.

1.4 Ekintza. Banatu gabeko familia-zamak dituzten emakumezkoei, baliabide eskasak dituzten emakumezkoei eta generozko biolentziaren biktima diren emakumezkoei babes ofizialeko etxeetara heltzeko lehentasuna ematea.

1.5 Ekintza. Emakumezkoek Mankomunitateko inguruneko politikak egiteko eta garatzeko orduan parte-hartze aktiboa izan dezaten, mekanismoak diseinatzea.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Hirigintza Batzordea

Elkarlana:

Hezkuntza

Osasun Batzordea

Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea

Kultura Batzordea

Kirol Batzordea

Enplegu Batzordea

Berdintasun politiken ardura duen Batzordea

Ogasuna

Zerbitzu Orokorrak

BIOLENTZIA ARLOA

Emakumezkoen aurkako biolentzia betidanik existitu da. Sistema patriarkalaren emaitza da eta oraindik ere gure gizartean nagusi den menderatzailea/menderatua sistema mantentzen duen mekanismoa da. Biolentzia mantentzen eta iraunarazten duen gizarteko gaitz larri horren inguruko kontzientziazio ezara garamatzaten botere harremanak (geure gizartean hain onartuta eta naturalizatuta daudenak) mantentzen ditu.

Gizarteak sarritan galdetzen dio bere buruari zergatik dirudien orain biolentzia gehiago dagoela. Erantzuna orain gehiago salatzen dela da. Biolentzia matxista jada ez da delitu pribatua, lege-mailan behintzat, eta emakumezkoen askatasunaren, osotasun fisikoaren eta psikikoaren eta bizitzaren aurkako delitu bihurtu da.

Gizarteak jada ezin du ez entzunarena egin biolentzia hain ankerraren aurrean. Beharrezkoa da gizartean tratu txarrak ematen dituzten pertsonetikiko zero tolerantzia aldarrikatzen duen sentsibilizazioa egotea. Oraindik belaunaldietan zehar transmititzen diren estereotipoak hausteko mekanismoak ezarri behar dira, estereotipo horietan emakumezkoa gizonezkoaren mendeko bezala agertzen da eta, horren ondorioz, emakumezkoak gizonezkoen menpe bizi dira, ez soilik ekonomiari dagokionez (egoera hori gero eta gutxiagotan gertatzen da), baizik eta baita afektibitateari dagokionez ere. Errespetuan oinarritzen diren, eta emakumezkoak gizonezkoekiko berdintasun oso eta errealez aintzat hartzen dituzten estrategiak diseinatu behar dira, biei eskubide berak aitortuz eta aukera berak eskainiz. Azkenik, tratu txarrak jasotzen dituzten emakumezkoak babesteko egiturak planifikatu behar dira; egitura horiek errealak eta eraginkorrak izan behar dira, babes eta arreta integrala eskaini behar dute eta horietan parte hartzen duten erakunde guztiek baterako ekimenean koordinatu behar dira.

Izan ere, emakumezko guztiek, emakumezko izate hutsagatik, biolentzia matxistaren biktima izan daitezke.

BIOLENTZIA ARLOARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Arlo honetan Planean jada garatutako hainbat Arloren ekimenak biltzen dira. Beraz, eta emakumezkoen aurkako biolentziaren biktimentzako arreta integrala garatu ahal izateko, arloen artean koordinazio aktiboa egotea komeni da. Horretaz gainera, gomendagarria da inguruko osasun, gizarte-zerbitzu, hezkuntza eta polizia eskudunek arlo honen barruan dauden helburu eta ekintzen buru izango den, eta horiek kudeatuko dituen Batzordea eratzea.

Helburuak

1. Helburua. Bortziriaken emakumezkoen aurkako biolentziari dagokionez dagoen arazo larria salatzea eta horren inguruan sentsibilizatzea

1.1 Ekintza. Gizarte-kidegoekin, elkarteekin, GKEekin eta udaletako arloekin koordinatuz, Bortziriakeko biztanleriari zuzenduta dauden, eta emakumezkoen aurkako biolentzia agerian uzteko helburua duten sentsibilizazio kanpainak bultzatzea (biolentziaren jatorriaren ikuspegitik, ondorioen ikuspegitik eta egun duen garrantziaren ikuspegitik, arrazaren, egoera ekonomikoaren, kulturaren, erlijioaren eta abarren inguruko mitoak deseginez).

1.2 Ekintza. Bortziriaki emakumezkoen aurkako biolentziaren biktimentzako erantzun egoki eta integrala emateko gai diren behar adina baliabide ematea, prestakuntzazkoak zein materialak.

1.3 Ekintza. Inguruan eta Nafarroa mailan erabili daitezkeen baliabideei buruzko txostena egitea eta emakumezkoen kidegoen artean banatzea.

1.4 Ekintza. Tratu txarren biktima diren emakumezkoen prebentzio eta arretan parte hartzen duten langile guztientzat, genero ikuspegia duen emakumezkoen aurkako biolentziaren prebentzio eta tratamenduaren gainean berariazko prestakuntza programatzea.

1.5 Ekintza. Tratu txarrak jaso dituzten emakumezkoen prebentzioan eta arretan parte hartzen duten administrazio publiko, erakunde, organizazio eta elkarteen arteko koordinazioa planifikatzea.

1.6 Ekintza. Tratu txarrak jaso dituzten emakumezkoen arretan parte hartzen duten kidego guztien artean jarduteko protokolo propioa diseinatzea edo Nafarroako Gobernuarena moldatzea.

2. Helburua. Emakumezkoen aurkako biolentzia prebenitzeko politika sustatzea, beste pertsonarekiko errespetuan oinarritzen dena

2.1 Ekintza. Profesionalentzat zein ikasle eta familientzat (sexua alde batera utziz) pertsona guztien errespetuan oinarritzen diren hezkuntza ez sexistaren programak diseinatzea, elkarbizitza baketsua izateko eta arazoak elkarriketaren bitartez konpondu ahal izateko.

BATZORDE ARDURADUNAK

Buru:

Berdintasun Politiken ardura duen Batzordea
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Elkarlana:

UDALEKO BATZORDE GUZTIAK
Polizia-erakundeak

4. Jarraipena eta ebaluazioa

Programazio guztietan beharrezkoa da jarraipen- eta ebaluazio-sistema ezartzea, jarraipena eta ebaluatzeko adierazleak ezarriz.

Bortziriakeko Ekintza Positiboko I. Plana, genero ikuspegia duten helburu eta ekintzen planifikazioa denez, genero ikuspegia adierazleetan ere sartzen du; horrek zera esan nahi du: adierazle horien bitartez, generoari lotuta, epe jakin batean eta egoera jakin batean gertatu diren aldaketak neurtu nahi ditugula, eta aldi berean, berdintasun gaietan aurreikusitako helburuak eta emaitzak lortu diren ala ez erabaki ahal izango dugula. Horretaz gainera, emakumezkoek gizarteari egiten dizkieten ekarpenak agerian uzten lagunduko dute.

Planaren funtsezko helburua zeharkakotasuna denez, adierazleek zeharkakotasuna neurtu behar dute. Plana garatzeko orduan bezalaxe, hizkera ez sexista erabili behar da.

Genero ikuspegia duten adierazleak erabiltzearen ondorioz, aurrera eramandako prozesuak neurtu behar ditugu. Beraz, proposatutako helburuak zein mailatan betetzen diren neurtu ahal izateko, **ereduzko fitxa orientagarria** ezarri dugu, Esku-hartze Arlo bakoitzak erabili dezan. Fitxaren periodizitatea urtekoa da.

Fitxan aurrera eramandako ekimenen sintesia jaso behar da, jarraian aipatzen direnak bezalako itemak erabiliz:

- Arloa
- Arduraduna
- Aurrera eramandako ekimena
- Hasiera-data eta iraupena
- Landutako Planaren helburua
- Ekimenaren deskribapena
- Beste arloekin egindako elkarlana
- Beste entitateekin egindako elkarlana
- Erabilitako baliabide teknikoak
- Aurrekontua
- Parte hartu duten pertsonak: Emakumezkoak Gizonezkoak
- Balorazioa
 - Lorpenak
 - Zailtasunak
 - Hobetzeko proposamenak

Jarraipenaren fitxarekin batera, genero ikuspegia barneratzeari dagokionez proposatutako helburu eta ekintzak neurtu behar dira:

- Hizkera ez sexista erabiltzea
- Emakumezkoen errealitate anitzei arreta eskaintzea
- *Emakumezkoengandik abiatuta*, eta ez emakumezkoek eta emakumezkoentzat eginak izatea

Neurketa proiektuen fase guztietan egin behar da, bai diagnostikotik, garapenetik, ebaluaziotik eta jarraipenetik.

Helburuen ebaluazioa dimentsioei (pertsonek, beren ingurua, programa, eta programaren ingurua) zein denborei (abiaraztea, emaitzak, eragina) begiratuz egin behar da:

Jarraian **adierazle** kuantitatiboak eta kualitatiboak zein diren zehazten dugu.

- *Berdintasunaren aldeko ekintzen abiaraztea neurtzeko:*
 - Diseinatutako ekintza kopurua
 - pertsonak:
 - xede izan daitezkeen pertsonak
 - pertsona onuradunak
 - pertsona onuradunen ingurua:
 - familia-zamak,
 - garraioa,
 - onura atera ahal izateko duen ordutegia,
 - proposatutako helburuarekiko egokitasuna. Honakoetan oinarrituz:
 - eraginkortasuna: emakumezko eta gizonezkoen beharrei erantzuten die
 - efikazia: dauden desberdintasunak ezabatzen ditu

- *Lortutako emaitzak neurtzeko:*
 - Emaitza kopurua: lorpenak
 - pertsonak:
 - xede izan daitezkeen pertsonak
 - pertsona onuradunak

- pertsona onuradunen ingurua:
 - familia-zamak,
 - garraioa,
 - onura atera ahal izateko duen ordutegia,
 - helburuak egokiak izatea. Honakoetan oinarrituz:
 - eraginkortasuna: emakumezko eta gizonezkoen beharrei erantzuten die
 - efikazia: dauden desberdintasunak ezabatzen ditu
 - biztanleriaren gogobetetasun maila
 - Emaizak ulertzeko modua
 - Aurkitutako zailtasunak
 - Hobetzeko proposamenak
- *Generoak harreman pertsonaletan duen eragina neurtzeko:*
- Gertatutako aldaketak: lorpenak
 - pertsonak:
 - xede izan daitezkeen pertsonak
 - pertsona onuradunak
 - pertsona onuradunen ingurua:
 - familia-zamak,
 - garraioa,
 - onura atera ahal izateko duen ordutegia,
 - aldaketen egokitasuna: Honakoetan oinarrituz:
 - eraginkortasuna: emakumezko eta gizonezkoen beharrei erantzuten die
 - efikazia: dauden desberdintasunak ezabatzen ditu

- biztanleriak harreman pertsonaletan izan diren aldaketak zein mailatan atzematen dituen
- aurkitutako zailtasunak
- hobetzeko proposamenak

Isos, Berdintasunerako Zerbitzuak, Bortziriakeko Ekintza Positiboko I. Plana posible izan dadin eskuzabaltasun osoz elkarlanean aritu diren pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkie.